

Pietro Manali

Albaniar filologoa

«Arbëreshea identitate ezaugarri handiena izan da»

Sizilian egon gara Pietro Manali filologoarekin. Arbëresherari buruz hitz egin digu, Albaniatik duela sei mende alde egindako komunitateak bizirik mantendu duen hizkuntzaz.

Karlos Zurutuza

EUROPAKO KOMUNITATERIK bitxi-ena ote? Ez dago Kaukasoko azken bailara misteriotsuraino joan beharrik, ezta kostalde artiko izozturaino ere. Errazago: hartu hegaldi merke bat Palermora eta handik Corleone herrira doan autobusa. 60 minuturen buruan Piana degli Albanesi iritsiko zara. “Benvenuti”, irakurriko duzu herriko sarrerako panelean; azpian, albaniar bertsioa: “Mirë se na erdhët”. Hori nahikoa bitxikeria ez, eta albaniar bandera gorriak –arrano beltz eta bi buruduna– atentzioa emango dizu Fiat 500 baten atzealdean erantsita, edo zintzilik hainbat etxetako balkoitan. Dena den, ez dira bertakoak herri-minak gainditutako iritsi berriak. Diotenez, arbëresheak XV. mendean lurreratu ziren Mediterraneo-ko irlan. Siziliarrekin harremana izan dute mendeotan zehar, jakina, baina ez gehiegi; ez nortasun ezaugarri nagusia, hizkuntza, galtzeraino. “Irla barruko irla” da Piana degli Albanesi, hala diote batzuk behintzat.

Giorgio Kastriota enparantzako bankuak toki bikaina dira atsedean hartzeko. Ba al zenekien Tiranako plaza nagusiak ere albaniar heroi handiaren izena duela? Bada, herriko plazatik atera gabe, Pietro Manali jator hartuko zaitu bertako libu-



KARLOS ZURUTUZA

“Ume oro arbëresheraz mintzatzen da etxean nahiz kalean”.

rutegian. Bera dugu egokiena gure jakin-mina asetzeko.

Azalduko zeniguke zer den arbëreshe herria?

Gure arbasoak Balkanetatik iritsi ziren XV. mendean. Kondairak dio Giorgio Kastriota albaniar heroia- ren senideak zirela, baina errealitate oso bestelakoa da. Antza, aita santuak ordaindutako mertzenarioak izan ziren gure arbasoak, edo besterik gabe, otomandarren erasoetatik ospa egindako albaniar- rrek.

Bost mende pasa dira jada Balkanetatik iritsi zinetenetik. Nola liteke hizkuntza hain bizirik egotea?

Isolamendua izan da giltza, batetik fisikoa, eta bestetik, komunitateak aukeratutakoa. Kontuan izan ezkontza mistoak 1950. urtera arte ez zirela gauzatu.

Bertako erakundeek ere lagundu dute hizkuntza mantentzen. Elizan arbëreshera erabiltzeak eragin handia izan du hizkuntzaren iraupean. Izan ere, “greci” (grekoak) deitu ohi digute, gure erritua ortodoxoa delako eta ez katolikoa.

Nortzuk dira arbëresheak?

Arbëresheak XV. mendean iritsi ziren Italiara Albaniatik. Calabria, Sizilia eta Apulia probintzietan bizi dira egun eta 100.000 inguru dira. Arbëresheek albaniar identitateari eutsi diote mendez mende, besteak beste, arbërisht hizkuntza, eta bizantziar erritua mantendu dituztelarik. Italiaren eragina jaso duen arren, euren mintzaira oso baliagarria da filologoentzat, otomandarren aurretiko albaniar hotsak mantendu baititu. Piana degli Albanesin ez ezik Siziliako herri gehiagotan topa daitezke komunitate horren kideak, hots, Santa Cristina Gelan, Contessa Entellinan, Mezzojuson eta Palazzo Adrianon. Beste hain-



SARA CUSENZA

Arbëresheak albaniar banderarekin.

bat herritan desagertu arren, albaniar jatorriko hainbat hitz entzun daitezke oraindik bertako siziliar dialektoan. 1880an siziliar askok Amerikara jo zuen, eta hainbat herri, esate baterako, Ybor City (Florida), arbëresheen kokaleku berri bilakatu ziren.

1937ra arte Piana de Greci zuen izena gure herriak.

Denboraldi luze horretan, makina bat arazo eta erasori aurre egingo zenioten, ezta?

Gaur egun bezala, duela 600 urte ere ez zen erraza Siziliako kulturaren txertatzea. Arazo handiena gure greziar-bizantziar erritua zen. Zaila zen onartzea beste kultu bat zuen komunitate arrotza. Txikitik arbëresheraz besterik ez genekien eta isuna jartzen zieten gure gurasoei. Italiara eskolan ikasten zen, baita gaur ere.

Edonola, hizkuntzaren kontrako erasoak biziki handiagoak dira gaur egun. Gaztelaniak edo frantsesak ez bezala, gureak nekez egin diezaioke aurre ingelesaren garaipen martxari.

Zein da, beraz, zuen hizkuntzaren egoera gaur egun?

Hizkuntza identitate ezaugarri handiena izan da guretzat, komunitatea babesteko ezinbesteko tresna. Zaila

da garapenez edo atzerakadaz hitz egitea. Arbëreshera orduz kanpo irakasten da eskolan, baina hementxo ume oro arbëresheraz mintzatzten da etxean nahiz kalean. Begibistan dago lehen ez genituen baliabide asko ditugula, hots, liburuak, grabaketak, eta abar.

Albaniarekin nahiko harreman sendoa mantendu duzue, ez da hala? Gure herriaren eta Albaniaren arteko harremana ez da inoiz eten, euren mendebaldearekiko lotura izan baikara beti. Albaniarrek "odol galdua" deitu ohi digute eta Enver Hoxa agintari estalinistaren erregimenak gure mitoa erabili zuen munduari Albaniaren "irudi ona" emateko. Izan ere, 70eko hamarkadan gutako asko Albanian egon ginen, Tiranak gonbidatuta. Erregimen totalitarioa zen arren, guk nazio-erreferente bat izan dugu beti, hau da, Balkanetan Albania izeneko herrialde subiranoa dago. Aldi berean, lotura honek Erromaren

mesfidantza sortu zuen. Esaterako, 60ko hamarkadan, Carabinieri poliziak Calabrian arbëresheak erreklutatu eta hona ekartzen zituen. Ez ziguten esaten eurak ere arbëresheak zirela; helburua bertako jendea ulertzea zen, ustezko gaizkileen solasaldiak hain "sekretuak" izan ez zitezten.

Zerk bereizten zaituzte Balkanetako albaniarrengandik?

Ia 600 urte igaro eta gero oso herri desberdinak gara. Albaniar gehienak musulmanak dira. Guk, aldiz, antzinako erritu ortodoxoari eusten diogu, oraindik ere. Hizkuntza aldetik, egungo albanierak mailegu asko jaso ditu turkieratik azken bost mendeetan, eta gurea, italiara nahiz Siziliako dialektoekin nahastu da denboraldi luze honetan. Agian, eskualde txiroan bizi izana elkarbanatzen dugu bi herriok, Sizilia ere oso atzeratua egon delako. Dena den, egungo Albaniako egoera ekonomiko nahiz soziala eta gurea ezin dira alderatu, inolaz ere.

Aipatu duzun pobrezia hori zela eta, 90eko hamarkadaren hasieran makina bat albaniar etorkin iritsi ziren Italiara. Nolako harremana izan zenuten haiekin?

90eko hamarkadan era guztietako albaniarrak iritsi ziren herrialde honetara, onak eta txarrak, baina Italiako iparraldeak "albaniarra = kriminala" ekuazioari eutsi dio beti. Urte haietan gutako asko itzultzaile lanetan aritzeko hartu zituzten eta,aldi berean, bertako jendeak elkartasun handia adierazi zieten iritsi berriei. Pianan, esaterako, badira primeran integratu diren familiak. Dena den, gauza jakina da beste batzuek espetxean bukatu dutela. Gaur gehiago hitz egiten da errumaniarrez albaniarrez baino. ▢

Babeslea: HABE